

# Noaqua!!


H A M A B O S T E K A R I A

1998ko maiatzak 8 III. urtea

Usurbil, 42. Zenbakia

DRUGA TRAFIKOA  
ALDE ZAHARREAN BERRIRO!

AKHERRA GAZTERIA  
ETA  
GORA ALDE ZAHARRA!



**M<sup>a</sup> Karmen Azpiroz:  
“nekazaritzak irtenbi-  
de bat behar du”**


## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Anjeli Vitoria!** Maiatzaren 5ean izan zen zure urtebetetzea. Ondo pasako zenuelakoan, muxu haundi bat. Etxekoak.



Zorionak **Jon Portu!** Maiatzaren 3an zazpi urte bete zenituen. Andatza egunean, mendi tontorrean ederki ospatu genuen zure urtemuga. Muxu bero bat. Eneko eta gurasoak



Zorionak **Xabier Undianori,** maiatzaren 4an 19 urte bete baitzituen. Urte askotarako Xabier eta mila zorion. Etxekoak.



Beti alai eta bixi, beti kalean barrena, gure txikiak ere urtea bete duela. Zorionak **Iratxe Angulo Galatas!**



Zorionak **Anoni!** Maiatzaren 11n 19 urte beteko ditu koadrilako zinezaleak. Broma dela...ez hadi petraldu! Muxu haundi bat. Zorionak **Andoni Udabe!**



Zorionak **Aitor Alkorta** hire 24. urtebetetzean. Maiatzaren 12an gu gonbidatu gabe ez duk alde egingo. Hire bidaie-tako lagunak.



Maiatzaren 12an herriko neskarik ederrena eta mai-tagarrienak 31 urte bete-zen dituenek, horrelakoa izaten jarraitu dezan beti, Zorionak **Eukene Kamino!**



Zorionak **Arantza Kamino!** Maiatzaren 17an 18 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu haundi-haundi bat. Etxekoak.



**Aritz Maeztu** gure neskatilak ere 25 urte beteko ditu San Ixidro egunean. Ea ba, denon artean ederki ospatzen dugun eta...masaiaren bat tokatzen zaigun! Kanputarrak



Zorionak **Saioa!** Etxeko txikiak Maiatzaren 10ean 19 urte beteko ditu. Jesooooo! Muxu bat xudur punttan **Saioa Fernandezi.** Zure lagunak.



**Nerea Kamino,** laister hasi beharko duzu "Señor de mi edad" abesten. Maiatzaren 16an zorionak etxekoan (apopilo eta guzti), koadrilakoan eta lagunenez partez.



Zorionak preioxala! Maiatzaren 16an 19 urte beteko ditun. Ondo pasau, gutxi gastau eta asko ligau. Zorionak **Izaro Lanberri.** Betiko lagunak.



Urte askoan Txapar! Gure rubiya maiatzaren 6an iritsi zitzaigun mende laurdenera. Horrelako patxada eta umorearekin mendea ere harrapatuko dun! Zorionak eta muxuak. Kanputarrak.



Zorionak **Aitziber Aranberri!** Orain egin barre, maiatza- ren 15ean 19 urte bete eta gu denoi gonbidatu behar gaituzunean ez da irrifarrerik izango eta. Koadrilakoak.



Zorionak **Anartz Aizpurua!** Kuadrilako "gizontxoak" maiatza- ren 8an 19 urte bete ditu. Zer nahi duzu oparitzat "txupa-txus" bat? Ondo pasa.



**Ibon Beristainen** urtebetetze eguna- rekin hasiko gara maiatzaren 8an. Atzetik, **Manu Piñeiro** etorriko zaigu 12an. Handik hiru egunetara, maiatza- ren 15ean, **Josu Aranberri** usurbil- go kazetari famatuak gonbidatu beharko gaitu. Eta hilak 19 betetzen dituenean **Karlos Aizpurua**ren 26ak ospatu beharko ditugu. Lehendabiziko hirurek 24 betetzen badituzte ere, lasai Karlos, laister harrapatuko haute eta. Maiatza, guretzat behintzat, a ze mahuka!! Zorionak, zuen lagunenez partez.



Zorionak **Larrait Sarasola!** Gure neska motzak maiatzaren 17an 26 urte beteko ditu. Non dira garai bateko juergak? Udara honetan bota beharko ditugu bat edo bi! Kanputarrak.



Zorionak **Joxe Mari Torregarai.** Maiatzaren 17an urteak beteko dituz- nez egun ona ospatzea opa dizu zure sendiak. Batez ere zure seme Aitzol eta Egoitzen partez.

## Hildakoak

1998-4-24  
**Maria Urkiri Esnaola**  
86 urte  
Muna Lurra



1998-5-05  
**Juanita Sagardia Manterola**  
80 urte  
Kaleberri

Norbaitek senide, lagun, adiskide edo eza- gunen bat zoriondu nahi badu hemen dauka dohaineko aukera. Argazki bat eta zorion- duaren izen, abizen eta urtebetetze egunak nahikoak dira. Datorren aleamaiazaren 22an aterako dugu. Ekarri beharrezkoa dena maiatzaren 16a baino lehen

# Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Kale Nagusia, 37  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com

**Zuzendaria**

Olatz Altuna

**Kazetariak**

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,  
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

**Kolaboratzaileak**

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,  
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,  
Nieves Aranburu, Luis Aranaide,  
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospeide,  
Agurtzane Solabarrieta, Joseba  
Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara  
Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz,  
Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria,  
Olatz Goenaga, Iزارo Aizpurua,  
Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko  
Manterola eta Joxe Torregaray.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino.

**Erredakzio Kontseilua:**

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,  
Ainhoa Azpiroz.

**Maketazioa eta diseinua**

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz  
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker  
Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Sukaldaria**

Joxe Mari Sarasola

**Tirada:** 2.200 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Udarako moda

**Marixabel Borda Izagirre**

Dendaria

**E**z digu oso udaberri ona egiten ari, eta neguko zamarra, jertsea eta botak gaineratik kendu ezinik gabiltza hainbeste euri eta haizerekin. Eskerrak guretzat (arropa dendentzat), komunio eta ezkontzen kontsolamendua geratzen zaigula! Izan ere, jendea asko arduratzen da egun seinatu hauetan eramaten duen itxurarekin; baita orokorrean ere, noski.

Gaur egun modari garrantzi handia ematen zaio; eta ondorioz, hau ere industria bilakatu da. Une honetan Frantzia eta Italia dira mundu mailako diseinuaren agintea dutenak; eta gezurra badirudi ere, Usurbilek ere nabarmentzen du moda hori, askoz ere beranduago bada ere. Hala ere, herrian gazteak dira moda berrien islarik nabarmenena.

Bestela ere, Usurbilen betidanik zaindu da jatzera. Batez ere emakumeetan da nabarmenena. Gizonezkoak, aldiz, klasikoak dira; ez dakit aukera gutxiago izango ote duten ala ez, baina bai oraindik gehienei (gazteei salbu) beren emazteek erosten dietela arropa.

Baina aurtengo udari begiratzin jartzen bagara, ikusiko dugu (emakumeen modari dagokionez) galtza eta txaketa trajeak

izango direla puri-purian izango ditugunak. Galtzak zabalak eta mozketa zuzenekoak izango dira, eta txaketa, berriz, belaur gainerartekoa. Honekin batera, betiko gona eta txaketadun trajeak ere izango dira, baina txaketa moztu egingo da, gerria baino beheragoxeago. Bestetik, ja narbarmena da ekialdeko kutsua duen arroparen eragina: leporik gabeko alkandora eta soinekoak, botoi txiki eta ugarriak, zeta eta satenezko telak... hauek guztiak, pixkanaka, gero eta gehiago ikusiko ditugu.

Koloreei dagokionez, urdina da nabarmen gehien ikusiko duguna, urdin argitik ilunerainoko gama guztietan. Honekin batera, betiko beixa ere izango da, eta uda udako kolore bezala horiarengatik apostu egin dutela dirudi (gogoratu iaz laranja eta pistatxo koloreek izan zuten "boom-a").

Azkenik, erabiliko diren telak arinak eta bolumena dutenak izango dira. Jendeak erosotasuna nahi du, eta horregatik telak gutxi zimurtzen direnak eta erraz garbitzen direnak dira. Garai bateko aberatsen linoa alde batera geratu da.

Datorren udako modaren nondik norakoak ja etorri dira, orain uda bera etortzea falta da. Zailagoa ematen du horrek.



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Azala:  
Mari Karmen Azpiroz  
Sarriesi plazako postuan

## Euskaldunontzat justiziarik ez

Tolosako epai-barrutiak bere baitan hartzen dituen herriak herri euskaldunak dira eta orain arte adierazpenen %65a euskaraz egin izan da, epaile euskaldun baten presentziak posible egin duenean behintzat.

Orain dela gutxi, epaile euskaldunaren kargu aldateta dela eta, euskaraz ez dakien epaile baten izendapenaren berri izan dugu. Epaile erdalduna izendatzeko erabakia justiziaren aurkako da. Izan ere, euskaldunok eta legeak berak onartzen dizkigun eskubideak urratzen ditu.

Egoera honen aurrean, Tolosaldeko hainbat euskaltzalerekin batera sinadura

billketa hasi dugu hau guztia salatzen. Gurekin ados bazaude herriko tabernetan, udaletxean... sina dezakezu.

**Amaia Maiz**

## Atxegaldeko bizilagunentzat bandoa

Egia esan, haserreak bultza nau gutun hau idaztera. Atxegaldeko bizilagun guztiok dakigu auzoa konpon-tzen ari direla eta oztopo ugarirekin egin dugu topo: zuloak nonahi, lokatza, autoak aparkatzeko leku falta... Zenbait egunetan kaleak itxita egon dira (eta egongo dira oraindik ere) eta ezin izan dugu autoan pasa. Horretaz konturatuko zineten.

**Eta ez al zarete konturatu zaborbiltzaileek ere ezin dutela pasa kamioiarekin?**


Bada, ez dirudi. Udaltzaingok portal bakoitzean paper bana jarri zuen horren berri emanez eta zaborrak zein lekutan utzi behar ziren azalduz plano batean. Berandu, baina tira! "Hemendik aurrera ez dut jendearen poltsak hartu eta lekuz aldatzen ibili beharko" pentsatu nuen.

Baina bai zera! Hala ere, izugarrizko pila egiten da zaborbiltzaileen kamioiak pasa ezin duen lekuan. Zergatik? **Ez al zarete konturaten atarian biltzen den zikinkeria guztiaz? Etxean gauza bera egiten al duzue?**

Benetan lotsagarria iruditzen zait!

Ea hemendik aurrera ez den gehiago gertatzen!

**A. A.**



*"Kontxo, kontxo!  
Hara non datorren  
**Ramon Aranburu**  
apaiza. Berandu  
baina seguru".  
Horrelako esaldiak  
entzun genituen  
Andatza egunean.  
Izan ere,  
Urdaigan meza  
eman ondoren  
**Santos Jauregik**  
traktoreaz igo  
zuen Don Ramon  
Andatzara.*

**SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA**  
**LOSU**  
Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>a</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa 37 19 54

**INDYSTRRI ETA  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA**



**TABERNA**



**7 t'erdietan  
irekitzen dugu**

**Goiz goizetik  
gosariak**

Irazu kalea,12  
Tlf: 943 36 02 17

**ORBELDI**

**MARKEL OLAIZOLA**  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



**GENERALI**  
Aseguru Konpainia

**Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako**

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



## JUANITA LOPETEGI ETXABE

Troia aurretik pasatzerakoan bada landare eta lorez gainezka dagoen Bide-gain izeneko etxe bat. Landare horiek, ordea, badute bere ama. Juanitak zaintzen ditu gau eta egun. Zenbat aldiz egon ote da zerura begira eguraldia iragarri nahian? Auskalo.



### Nondik ateratzen dituzu horrenbeste lore?

Aspalditik dauzkat batzuk eta erosi berriak besteak, denetik aurkituko duzu hemen. Hala ere orain garestiagoak dira. Azkenekoa mila pezetatik gora ordaindu nuen.

### Asko gustatzen zaizkizu ezta?

Izugarri. Gaztetan, nobioak ginenean, gizonak begonia eder bat erregalatu zidan. Asko emozionatu nintzen, ikaragarri gustatu zitzaidan. Handik gutxira katuak txiki-txiki eginda utzi zidan begonia. Hostoren batzuk berreskuratu nituen baina... Begonia hura gero ez zen hasierako bera izan.

### Zenbat landare eta lore dituzu?

Uff... ez ditut inoiz kontatu. Jendeak askotan egin izan dit galdera bera baina egitan, inoiz ez ditut zenbatu. Balkoian, etxe barruan landare asko ditut eta negutegi txiki bat ere badaukat.

### Eguraldi txarraren beldur zenbat aldiz begiratu ote duzu zerura?.

Euria egitean kanpora ateratzen ditut batzuetan, baina hotzarekin nahiz kazkabarrarekin kontuz ibili behar da. Aurreko batean etxekoek barre egiten zidaten. Loreak kanpora ateratzera-koan zera esaten zidaten barrezka: "gauean kazkabarra egingo du, kontuz ibili".

### Orain Troian bizi bazara ere aiar usaina hartzen dituz.

Aian jaio nintzen, bai, Usuriaga baserrian. Nire gizona, orduan nobioa, Oriokoa zen eta ezkondu eta berehala Txikierdira etorri ginen bizitzera. Txikierdiko zentrolean hiru urte egin genituen, bertan lanean. Han nazkatu eta Lasartera bizitzera joan ginen gero.

### Noiz etorri zineten Troiara bizitzera?

Orain dela 40 urte etorri ginen etxe honetara, Bide-gainera. Guk egin genuen etxea eta errege egunaren bezperan jarri ginen bertan bizitzera. Ezin dut ahaztu lehenengo egun haietan pasa nuen hotza. Hanketatik ipurdiraino ospelak eduki nituen, hura hotza.

### Lanbidez jostuna izan omen zara?

Hamalau urterekin hasi nintzen josten ikasten eta Tolosan ere egona naiz. Han gizona zuten jantziak josten genituen eta niri emakumeen jantziekin lan egitea gustatu izan zait beti.

### Jostunak lan asko izaten al du?

Lehen, gaur egun bezala, modista gutxi zeuden, eta guk lana franko izaten genuen. Batzuetan, jendeak ez zekien zer nahi zuen. Nolako jantzia nahi zuten galdetzean "zuk nahi duzuna" esaten zuten eta askotan, zer jantzi egingo nien pentsatzen pasatzen nuen gaua.

### Hala ere orain ez dituzu lan horiek egiten.

Orain dela 4 urte utzi nuen modista lan hori. Egunduan zera esan nion nire buruari lehenengo eta etxekeoi gero: aspertu naiz lan honetan eta utzi egin behar dut. Etxekoek ondo hartu zuten eta orain, etxekeo jostunak lan txikiak bakarrik egiten ditut.

### Zer moduz EEBBetara joan zinenen?

Semeak zesta puntan Miamin jokatzen zuen eta hara joan ginen. Han, lore dendaz lore denda ibili nintzen. Han negurik ez du egiten eta lore oso ederrak zeuden. Etxetik ezer esan gabe alde egin eta denda haietara joaten nintzen. Azkenean, handik hona gauzak ekartzea zaila bazen ere, etxera bat edo beste ekarri nuen.



ARRAINDEGIA  
**PELLO**

Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL



**URTINEA  
LORATEGIA**

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 36 22 55

**ANDONI** PINTURAK  
Especializaturak

Itxasku-Berri etxea Tel: 36 13 18  
Usurbil Mobila: 939 70 08 67

# TXOKOALDE

Iñaki Labaka



## Trenbideko pasabidearekin bueltaka

**I**rabi aldera joateko ibilgai-luentsat bide berria egin zutenetik, trenbidea zeharkatzeko auzoko bigarren pasabidea txukun-txukun sarearekin itxi zuten. Denak gustora ez nonbait eta norbaitek, bide berria luzeegi irudituta, oinezkoak pasatzeko bi aldeetatik zulatu zuen sarea.

Badira, helduak batez ere, oinezkoentzat trenbidea zeharkatzeko leku horrek hor egon behar duela pentsatzen dutenak, pasabidea aspaldikoa baita. Pasabidea garbia izan arren, haurrentzat arriskutsua izan daitekeela esanaz hitz

ugari entzun ditut. Auzokook badakigu sarea zulatuta dagoela eta beharrezkoak diren neurriak hartzen ditugu. Kanpokoek, ordea, trenbidea sarez itxita ikusten dute eta haurrei askatasuna ematen diete. Nire ustez jendea ohitu da bide berrira. Zenbat metro gehiago egin behar dira ba?

Bestalde, ez da hau arazo bakarra. Eusko Trenek, tren geltokitik aurrera, Illunbe aldean, dagoen pasabidea pibote



batzuek ixteko asmoa zuen. Baserritarrek, traktoreak eta abereak beren lurretara eramateko pasabide hau erabiltzen dutenez, horretaz konturatu zirenean istilu latzak izan ziren. Udaltzainak eta alkatea bera ere auzoan izan ziren.

# KALEBERRI

Itziar Aizpurua



## Iturri berriko urak dakarrena

**F**rontoi atzeko parkeari buruz hitz egin beharko dizuet oraingoan. Gu, goi alde horretara askotan iristen ez bagara ere, iturri zaharra kendu zutela azkar zabaldu zen Kaleberrin. "Aizan!, txirristako iturria kentzen ari ditun". Honelako esaldiekin jakiten dugu askotan herrian zer gertatzen den.

Honela, ba, jakin genuen iturri zaharra kentzen ari zirela. Azken aldian ez omen zuen urik botatzen, baina zenbat ume ibiliko ote da iturri horretan urarekin jolasean? Parkeko jostailu nagusia izan zen iturri hori garai batean. Ura edatera baino urarekin jolastera joaten ziren umeak.



Iturria kendu zutela jakin genuen bai, baina berria jarri zutela ere bai. Dirudienez, asteartean, apirilak 28an jarri zuten berria bere lekuan. Orain, aspaldiko partez, iturriak, iturria izateagatik behar lukeen bezala, ura ematen du. Bere itxura ez da ohizko iturri batena baina tira, iturri bat da azken finean. Hala ere, umeen dutxa bihurtu daiteke. Lehengoarekin nahikoa bustitzen baziren, ez ote dira orain gehiago bustiko?

Zer egingo diogu ba! Umeak beti jolaserako gogoarekin. Honelako iturriarekin, adinez ume ez direnak ere ume bihurtuko dira denbora gutzi barru. Ziur egon!

# ATXEGALDE

## Nora zoaz? "Mari Pazenera"

Amagoia Mujika



**M**ari Pazenera noa, Mari Pazenetik nator, orain ogia, gero gatza falta dela...makina buelta egina naiz Atxegaldeko aldapetan gora eta behera!

Izan ere, zenbat urte ote daramatza Mari Pazek Atxegalden? Nik 19 ditut eta betidanik gogoratzen dut Mari Paz mostradorearen bestaldean.

Baina dena aldatzen omen da eta Mari Paz ere joan zaigu mostradorearen atze aldetik, orain Xabier Berroeta gazteak erosi baitu denda. 23 urteko goizuetar honek badu esperientzia dendari gisa, izan ere, lehenago gurasoen dendan

lan egiten zuen, Goizuetan.

Bere aitak entzun omen zuen Mari Pazek denda saldu nahi zuenaren kontua eta Xabierrentzat aukera ona iruditu zitzaion.

Auzotarrokin ongi konpontzen da dendari gaztea, jende jatorra omen dago Atxegalden, zer esango du, bada?

Agian kuxkuxero samarrak izango gara?

"Beti gertatzen da herri txikie-



tan, Goizuetan ere hala gertatzen da. Gauza normala da hori"

Beharko! Gaur egun gauza jakina baita "kontu txiki" guztiak ileapaindegi eta dendetan egosten direla.

# KALEZAR

## Lanerako gogo gutxi

Urko Manterola



**M**aiatzean sartu gara eta festa usaina gure sudurretan barrura hasia da ja. Ni ere, Kalezar goiko txokotik festa kontuekin nator oraingo honetan.

Dakizuenez, Kalezarko festak ekainaren 24an (San Joanak) ospatzen dira, San Raketan ere auzoko festak izan arren pixka bat ahaztuxeak baitaude.

Zenbaitek uste ez izan arren, festak ez dira bakarrik prestatzen, atzean zenbait pertsonen urte osoko lana dago. Urteroko moduan, aurten ere festak antolatzerakoan jende falta nabaria da. Jai batzordean urte osoan gabiltzanok auzota-

ren partaidetza haundiagoaren beharra ikusten dugu (zahar nahiz gazte). Jende berriaren sarrerak ideia berriak ekarriko lituzke, festei bizitasun pixka bat emanaz.

Toki berria ere badugu (nahiz eta esertzeko lekurik ez izan) Harane futbol zelaiko aldagelelaren gainean. Bertan biltzen gara azken urte honetan ia ostiralero gaueko hamarrak aldera. Guztion artean Kalezarren festa hobeak egin daitezkeela argi daukagu eta festak guztionak

direnez, bakoitzak ahal duen moduan bere laguntza ematea ezinbestekoa da.

Beraz, nahi duenak badaki non gauden, oraingoan ez dago aitzakiarik.



# SANTUENEA

## Idoia Iturrioz Eritreara

Alfontso Vidal



**S**antueneatar bat Eritreara, Afrikara, joango da lanera udara honetan Donostiako Caritasekin. Guztira 10 gazte doaz eta **Idoia Iturrioz** da horietako bat. Caritas Afrikako herrialde honetan gauzatzen

ari den nekazal formakuntzarako gune baten proiektua amaitzen laguntzea izango da Idoia eta beste gazteen lana.

Ez doaz, beraz, oporretara, lanera baizik. Azpiegitura proiektuetan peoi moduan arituko dira lanean, beti ere herri lanean. Honela, etortzerakoan, Eritreako errealitatea nola-koa den ikusi ondoren hemengo jendea sentibilizatzea lortu nahi du Donostiako Caritasek.

Afrikako kontuak alde batera utzita, Santuenera itzuliko gara. Maiatzaren 2an, larunbatean, **Arrate Leunda** ipuin kontalaria gure auzoan izan zen ipuinak kontatzen. Udalak eta auzoetako jai batzordeek antolatutako haurrentzako ikuskizunen barnean, lehen ekitaldia Santuenerako haur eskolan egin zen.

Ume asko azaldu ziren eskolara eta oso gustora gainera. **Arrate Leundak** kontatutako ipuinak atentzio haundiz jarraitu zituzten. Izan ere, gure auzoan ez dira horrelako ekitaldiak askotan egiten. Ea ba hemendik aurrera ekitaldi gehiago egiten diren Santueneren.



# URDAIAGA

## Eguraldi petrala Andatza egunean

Eider Jauregi



**A**ndatza eguna ere dagoe-  
neko pasa zaigu eta bertan izan ziren guztiek dakite bertako egoera zein izan zen. Eguraldi txarra dela eta jende askok etxean gelditzea erabaki zuten, baina jai egunean egin behar zituzten lanak ongi egiteko trabak izan zituzten antolazailleek.

Aurreko egunetan egin zituen euri jasal zirela eta Andatza lokatz haundia zegoen eta prestaketak egiteko gauza guztiak traktore bidez igo behar izan zituzten. Udaletxeke patolarekin igo nahi gauzak eta ezin. Lokatzak ez zien utzi gora joaten. Gero, gure trakto-

reari erre-molkea jarri eta han joan ziren goruntz. Hala ere goraino iristeko nahikoa lan izan omen zuten.

Salda eta pintxoak behintzat banatu zituzten. Gero babarrun jana bertan behe-  
ra utzi zuten. Alde batetik, txertelak ez ziren saldu eta bestetik Andatza babarrunak jaten gelditzeko girorik ez zegoen.



Azkenik meza eman behar zuten apaiza ere, **Ramon Aranburu**, berandu baino iritsi zen Andatzara. Nahiz eta ez zela igo esaten duten zurrumurruak zabaldu, traktorez igo zen gora.



# AGINAGA

## Egun beltzak Intxaurretan

Izaro Aizpurua



**H**amabostaldi honetan izan dugu egun beltzik Aginagako mutur honetan, Intxaurretan. Joan den astelehenean, hilak 27, bi istripu izan genituen. Lehenengoa, eguerdiko ordubiak aldean, nahikoa erraz konpondu zuten. Ez zen zauriturik izan eta Ertzaintzak nahikoa azkar zabaldu zuen bidea.


Bigarrenean, ordea, arratsaldeko zazpiak aldera, ez zen lehendabizikoan adinako zortetik izan. Oriotik Usurbila zihon kotxe bat kontrako norabidean zihon furgoneta baten azpira sartu zen. Kotxea zisko eginda gelditu zen eta furgoneta ere

bai. Oraingo honetan, ordea, kotxeko gidaria larri zauritu zen, eta furgonetakoak ere, ondo hitz egitenbazuen ere, bazuen kopetean kolperen bat.

Baina non ziren hauei kasu egiteko anbulantziak? Lehenengoa istripua gertatu eta hogeita bost minutura iritsi zen. Eskerrak han inguruan zegoen sokorrista bati, bestela... Astigarragakoa zen gizon hau hil egin zela hurrengo egunean jakin genuen. Nork jakin, agian anbulantziak lehenago etorri balira...

Ertzainek ere ez zuten oso lan txukuna egin. Hasteko, ez ziren iladak seinalizatzeko gai izan.

Istripua kurban gertatu bazen ere, hiru kotxeko ilada sortu orduko beste kurba batean gaude eta Usurbildik datorrenak ez du kotxerik ikusten.



# ZUBIETA

## Zubieta: ipuin bat

Izaskun Zubiria



**B**a zen behin Zubieta izeneko auzo bat. Donostia eta Usurbilen artean banatua, Lasarte-Oria zuen aldamenean. Hala ere, bere izena oso ezaguna zen leku askotan.

Alde batetik, kirol kontuek zabaltzen zuten Zubietaren izena. Non entrenatzen zuen errealak? Zubietako futbol zelaian. Non aurkitu zitekeen errebotean jokatzeko plaza berezia?


Zubietan. Non egiten ziren zaldi laisterketak? Zubietako hipodromoan.

Beste aldetik, Donostia eta Usurbilen artean banatua egoteak ere bere sona eman zion eta nola ez, sagardo

tegien bidez ahoz-ahoz, bertsoz-bertso zabaldu zen auzo honen izena. Hezkuntza arloan, berriz, bazegoen Lanbide eskola izena zuen eskola handi eta entzutetsu bat.

Hauxe da, ipuin moduan kontatuta bada ere, Zubietari buruz esan genezakeena. Auzo bat izateko gauza garrantzitsu ugari dituela esan behar.

Eta ez aurrez aipatu ditudanak bakarrik, orain Bugatin merkatu handi bat egiten ari dira. Hori ere Zubietako lurretan egin behar. Zubietak zerbait berezia ote du horrelako azpiegitura edukitzeko?



## 1998. urteko lehenengo kreditu aldaketa

1998. urteko aurrekontuaren barnean, 1. kreditu aldaketa onartu zen joan den apirilaren 28an egin zen plenoan. Aurrekontuak aspaldi onartu ziren, baina aurrekontua egiten ari zirenean inbertsio berriak egiteko eta aurrekontuan jarritako partidak haunditzeko beharra ikusi zuten.

Gastuei dagokionez, alde batetik partiden gehitzea da. Uholdeen eragina handia izan da. Aurrekontua egin zutenean uholdetarako ez zuten ia ezer aurreikusi, oraindik ez baitzekiten zer laguntza izango zituzten. Txokoaldeko urbanizazioa egiteko, adibidez, 10 milioi aurreikusi zituzten

eta kreditu aldaketaren bidez beste 40 milioi bideratuko dira. Santuenero zubia bi alboak konpontzeko, berriz, 6 milioi. Guztira 51.208.181 pezeta erabiliko dira aurrekontuan zeuden inbertsioen partidak gehitzeko.



Beste aldetik, partida berriak egongo lirateke. Aurrekontua egiterakoan bertan sartu ez ziren inbertsio eta gastu horiek, kreditu aldaketa honen bidez sartzen dira aurrekontuan. Nekazari bideak konpontzeko ia 14 milioi bideratuko dira, 7 milioi Etxealdiako lurak erosteko, ia 8 milioi Santuenero urbanizazio ingurua txukuntzeko, 5 milioi Urdairatik Bentara bidea egiteko etab. Guztira 56.379.390 pezeta.

Sarreretan, berriz, aurrekontuak egiterakoan oraindik ez zeuden dirusarrerak sartuko dira, 104.887.571 pezeta hain zuzen ere.

## Kaleberriko txabola bat bota nahian

**K**aleberrin, Gurutze eta Josefa etheen inguruan dagoen txabola bat bota ahal izateko beharrezkoak diren tramiteei hasiera ematea erabaki zuten joan den apirilaren 28an egin zen plenoan.

Etxe hauen ingurua urbanizatu dago eta etxe berriak egiterakoan inguru guzti hau aldatzen ari da. Errotonda eginga dago eta Galtzarazpiko etxe berriak egiten laister hasiko dira.

Eremu hauetan ordenazioz kanpo agertzen ziren zenbait txabola zeuden lehen. Pixkanaka-pixkanaka jabeak beren txabolak botatzen joan dira, baina **Jose Victoriaren**

txabola da bertan gelditzen den bakarra.

Horregatik, udalak, PNVren abstentzioarekin eta gainontzeko guztien adostasunarekin, txabola botatzeko beharrezkoak diren tramite edo pausuak ematen hasteko akordioa hartu zuen azkenengo plenoan.



## Zaharren egoitza

**Z**aharren egoitza berriaren Zardura hartzeko lehiaketara aurkezteko epea apirilaren bukaeran amaitu ondoren, maiatzaren 5ean udal txean egin zen gobernu batzordean zahar egoitza berria nork eramango duen erabaki zuten. Aurreko saikeran bi pertsona aurkeztu eta bat aukeratu ondoren, azken hau atzera bota zen. Honela, baldintza batzuk aldatu eta lehiaketa berriz egin behar izan du udalak Horregatik, **Justa Aizpurua Azkue** izango da, lehiaketa berriaren ondoren, zahar egoitza eta bertan dagoen tabernaren ardura hartuko duen pertsona.

**JUANTXO**  
Burdindegia



Kale nagusia, 10  
Usurbil

☎ 37 00 08

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



**J. Orbegozo**



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

**Telesforo**  
Ardoak



Zure  
mahairako  
egokienak

Kale Nagusia, 25  
Telf. 36 12 20

### URDAIRATIK ORIOKO BENTARA

Urdairatik Orioko Bentara doan bidea hobetzen hasiko dira laister. Joan den apirilaren 28an egin zen plenoan, bidea hobetzeko lehen fasea aurrera eramatea erabaki zuen udalak H.B.ko zinegotzien eta Izaskun Maiz independentearen aldeko botuekin. EA abstentitu egin zen eta PNVk aurkako botoa eman zuen. Bide hori, Eguzkitza baserri parean itxita egon da azken urteetan. Orain dela gutxi, Epaitegi Gorenak arrazoa eman zion udalari eta horregatik obrak egiten hastea erabaki du. Lehen fase hau, Excavaciones Igeldok egingo du.




**A**txega jauregiaren kulebroia amaitu da azkenean. Otsaileko huts egitearen ondoren udalak jauregia errentan nork hartuko zuen lehiaketa bidez erabakitzea onartu bazuen ere, lehiaketa ez da beharrezkoa izan. Atxega jauregia alokatzeko proposamen bakarra izan da oraingoan, **Miguel Anjel Baldak** aurkeztutakoa. Aurrekoan ere, beste batek alegazioa sartu baino lehen, gizon honi eman zitzaion jauregiaren 75 urteko alokairua. Behe-solairuan jatetxea jarriko dute eta goiko solairuan 16 logela. Hauekin batera bilera gela bat jartzeko asmoa dute.

### BERRIKUNTZAK ETXEALDIAN



Etxealdiako sarrera berria egin ahal izateko lurrak erostea erabaki zuen udalak azkeneko plenoan. EAko zinegotziak abstentitu egin ziren eta gainontzekoek aldeko botua eman zuten. Guztira 4.038 metro karratuko azalera duen lurzatia erosiko du udalak eta 1700 pezeta ordainduko du metro karratu bakoitzeko.

Bestalde, Etxealdiako plaza berritzeko diru bat sartu da kreditu aldaketan. Uholdeen ondorioz kalte handiak jasan zituen eta horregatik, plaza eta inguruko barandila eta belardiak txukundu egingo dira



Kafe hauek denak...  
**FREXKOAK  
XIGORTU BERRIAK  
XUABEAK.....dira**

Egunero herriz-herriz banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



**BAQUE KAFE**  
XUABEA

## Rafa Diez: "Euskal sindikalismoak bere dinamika hartu du lehen aldiz"

**R**afa Diez LABeko idazkari nagusia gure artean izan genuen joan den apirilaren 24an. Arnaldo Otegi H.B.ko kidearekin batera hitzaldia eskaini zuen Aitzaga elkartearen. Azken aste hauetan etengabe ikusi dugu komunikabideetan. Apirilaren 23ko ordubeteko lanuztean, eta langile egunean protagonismo handia izan du. Noaua!k ere berarekin solasalditxo bat izateko aukera izan zuen.

**1998ko maiatzean nolakoa da Euskal Herriko egoera sozio-ekonomikoa?**

Egoera sozio-ekonomikoaz hitz egiten dugunean bi argazki agertzen dira etengabe: alde batetik, komunikabideetan azaltzen dena eta, bestetik, horren atzean dagoena. Komunikabideetan, politikoez eta ekonomian adituek ondo goazela esaten dute, hazkunde ekonomikoa dagoela. Azken batean, eskenatoki idiliko bat eskaintzen digute. Argazki honen atzean, ordea, beste argazki bat dago. %20ko langabezia daukagu Euskal Herrian, egonkortasun falta oso handia da, gazteen esparruan erdia langabezian dago eta beste erdia ezegonkortasunean... Azken finean, egoera ekonomikoa interesen arabera erabiltzen dute.

**Zer egiten dute sindikatuek egoera honen aurrean?**

Sindikatuok, Euskal Herrian dagoen argazki erreal hori aurkeztu nahi dugu: langabezian daude 220.000 pertsona inguru, lan merkatuan ezegonkortasuna etengabe hedatzen ari da... Orain arte neoliberalismoak irentsi gaitu eta orain, Euskal Herrian sindikalismoa berrindartu eta



enpresariei aurre egiteko oinarriak ikusten dira. Agintariez lantegietan duten indarra murrizten saiatu eta irtenbideak eskatu behar dizkiugu.

**Azken hilabeteetan zer bait mugitzen ari da langileriaren artean?**

Azken 3-4 hilabeteetan pauso garrantzitsuak eman dira. Ordulegiaren murrizketa, soldata soziala... sentsibilizazio dinamika batekin mobilizatorako urratsak eman ditugu. ELA eta LABen arteko batasunetik abiatuta egoera sozio-ekonomiko honi erantzuna emateko baldintzak badaude orain Euskal Herrian. Lehen aldiz, euskal sindikalismoak dinamika bat hartu du eta Euskal Herrian hori nabaritzen da.

**Apirilaren 23an ordubeteko geldialdia egin zen. Eta orain zer?**

Ordubeteko geldialdia egin zen bai, erantzuna oso positiboa izan zen, gazteak ere mugitu ziren, baina arlo horretan lan asko egin behar da. Sentsibilizazio eta mobilizazio dinamika berri horretan gazteak ere interesatu dira eta sin-

dikalismoa beraien helburuak lortzeko tresna moduan ikusi dute. Dena den, guzti hau, bide luze baten abiapuntua besterik ez da izan. Langileen eguneroko kezka eta eskakizunekin lan egin behar dugu, hausnarketa politikoak egin eta eguneroko sindikalismoa errebeindikatu.

**ELA eta LABen arteko elkar-lana politika mailan eredugarri izan daiteke?**

Lau urte daramatzagu elkar-lanean eta paper hori bete beharko genuke. Abertzaletasuna astindu behar dugu. Gure herriaren etorkizuna defendatu nahi badugu batasun dinamika batera joan beharra daukagu. Zentzu honetan eredugarri izan gaitzeki beste sektore abertzaleentzat, batez ere, une honetan espainolistekin loturak dituzten alderdientzat. Lotura horiek apurtu behar dira eta eraikuntza nazionalaren alde apustu egiten dugunok esparru bat bilatu behar dugu gutxienez herri honi dagozkion eskubideak bideratu arte.

# USURBILI BURUZKO I. IKERKETA LEHIAKETA

***Noaqua! Kultur Elkarteak  
250.000 pta. bildu ditu  
1998an Usurbili buruz euskarazko  
ikerlan-proiektuak laguntzeko.***

Ikerlana edozein zientzi alorrekoa izan  
daiteke: historia, soziologia, biologia, kultura ...  
baina beti ere Usurbilgo herriari buruzkoa.

---

Deialdi honetan edozeinek parte har dezake,  
taldeka edo banaka.

---

Ikerlan-proiektuak *Noaqua!* Kultur Elkartearen  
egoitzara ekarri beharko dira.

---

Eskaerak jasotzeko epea 98ko ekainaren 20an,  
eguerdiko 12etan, itxiko da.

## M<sup>a</sup> Karmen Azpiroz: "Lehen Usurbilgo baserritar guztiok Bretxara joaten ginen"

Mari Karmen Azpiroz Urdaigako Portu baserrian bizi da. Urte asko daramatza nekazaritza lanetan eta orain ere askotan ikusiko duzu bere furgoneta gorrian barazkiak hara eta hona garraiatzen. Goizean goiz Bretxan egoten da bere barazkiak saltzen. Gero, eguneroko bezeroei egiten die bisita. Arratsaldean, berriz, baratzen aurkituko duzu.

**Lehen Bretxan egoten zireten baserritarrak, baina orain non demontre zaudete?**

Sarriegin gaude orain, baina oso egoera txarrean. Goizeko 6.00etatik 8.00etara ordua dugun baserritarrak kotxe artean egoten gara, ia ez dugu elkar ikusten eta argirik ere ez daukagu. Ea laister Bugatira joaten garen. Izan ere, lehen Bretxan geunden gehienok Bugatira goaz.

**Horren egoera txarrean al zaudete?**

Gure egoera penagarria da. Obrak egiten ari dira, kotxeak ibiltzen dira... Goizeko 5.00etan ateratzen naiz etxetik, hara joan, kotxea utzi eta 6.00etan postuan egoteko. Zuek atera kontuak.

**Oztopoak besterik ez, beraz.**

Pena da. Edozein lekutan baserriarrentzako azokak indartzen ari diren bitartean, Donostian urte askotan egon den hori desagertzeaz dago. Nik ez dut ezer ulertzen.

**Donostiako udalak ez al du ezer egin egoera honen aurrean?**

Alkatearekin hitz egin nuen eta plazaren kontua gustatzen zitzaiola esan zidan. Jar ezak ba orduan! Niri grazia egiten didate, "ayuda al



caserio" esaten dute. "Caserio"? Kaka. Agintariak, diputaziokoek... lan ikaragarriak egiteko agintzen dituzte, baina sekula ez diet entzun horren sinplea den esaldi hau: baserritarrei lanpostu bat eman behar diegu, lekua jarri behar diegu. Benetan, ez dut ezer ulertzen

**Jeneroa non saldurik ez duzuela izango da beraz zuen beldur nagusia.**

Halaxe da bai. Gaur egun nolabait moldatzen gara baina salmentarako leku egokirik ez badaukagu, akabo. Orain egoera oso txarrean gaude eta etorkizunean Bugatira joateko erabakia hartua badago ere ziurtasun haundirik ez dugu.

**Zenbat ordaintzen duzue orain daukauen postu baten-gatik?**

Momentu honetan, gauden moduan egonda ere, hilean 7.200 pezeta ordaintzen ditugu, hilabetea hasi aurretik gainera. Bretxan 125-200 pezeta ordaintzen genituen urteak ezagutu izan ditut nik. Urteak urtera asko igo dira prezioak. Postu seguru bat emango balute behintzat! Ez ematen ordea. Orain korrika

eta presaka joan behar izaten dugu toki bila, posturik gabe gelditzeko arriskuarekin. Guk saltzeko leku segurua behar dugu, hori besterik ez dugu eskatzen. Dendariek erosten dizkigute barazkiak eta horiek gustora etorri behar dute. Aurreko batean, batek hurrengo egunean ez zetorrela esan zuen. Zergatia galdeztzean zera erantzun zigun: kotxeak aparkatzeko lekurik ere ez duzue eta! Arrazoi zuen. Jeneroarekin ez gara gustora joaten merkatura.

**Bugatira joatea erabaki duzue, baina aukeraketa hori egin baino lehen tirabira ugari izan dituzue ezta?**

Baserritarroi bi aukera jarri zaizkigu: Igara edo Bugati. Igara Donostiako udalak jartzten zuen, merkeagoa beraz, eta Bugati, berriz, pribatua zen. Gure artean ezin ginen ados jarri: batzuek Igarara joan nahi zuten, Bugatira besteek. Bugatin denontzako lekurik ez zegoen, Igaran bai. Igaran dendetako erosle gutxiago egoteko arriskua zegoen, Bugatin ez. Azkenean, bilera batean esan genuen batera edo bestera. Azkenean Bugatira joatea erabaki genuen, Atotxan

dauden almatzen guztiak hara baitoaz.

### **Noiz duzue Bugatiko merkatura pasatzeko asmoa?**

Ez dakit. Badirudi nahikoa azkar ari direla lanak egiten. Udazkenerako amaituko dutela esaten digute. Hasieran baserriarontzat den lekua hiru milioitan erosteko aipatu ziguten. Hainbeste? Atzera egin genuen. Orain bi urterako errentan hartu behar dugu, gero gurea izateko aukerarekin.

### **Zubietako merkatuan postu bat edukitzea zenbat kostako zaizue?**

Hileko 20.000 pezeta inguru ordaindu beharko ditugula esan digute, baina oraindik ez dakigu ziur zenbat izango den. Horrekin batera BEZa eta beste hainbat kontu ere sortuko dira. Haziendak harrapatuko digu dena. Bugatira goazen baserriar bakoitzak 10.000 pezeta jarri ditugu ja, tramitazio kontuak egiteko etab.

### **Azken 10-20 urte hauetan asko aldatu al da nekazarion egoera?**

Lehen, Bretxara baserriar asko joaten zen. Usurbilgo baserriar guztiak hara joaten ziren, aginagarrak ere bai. Olarrondokoak, Ugartetxe-

berrikoak, Bizkarrekoak... guztiok joaten ginen. Orain, berriz, zenbat gelditzen gara ba? Udarregiko Itziar bere seme edo alabarekin, Olarrikoa, Puntapaxen negutegia duen Angelita eta ni.

### **Zer barazki mota daukazue momentu honetan?**

Ilarrak, babak, azelgak, porruak, tipula, letxua... denetik daukazu, egunekoa, gainera, ez almatzenetik hartutakoa. Guk egunero-egunero arratsaldean jenero guztia garbitu, moztu, jarri eta txukun-txukun ibilgailuan hurrengo egunerako prest uzten dugu.

### **Apirilaren 23an, lurraren nazioarteko egunean, baserriarrok nekazaritza lurra gero eta gutxiago dagoela salatzen zenuen.**

Baserriar ugari bildu ginen Astigarragan, Ergobia auzoan dagoen Goiaz Berri baserrian. Bertako jabea gurekin egoten da Bretxan, familia hortatik bizi da, baina baserriko lur horiek, 54.000 m<sup>2</sup>, Urumeako autobidea eta bigarren zinturoia egiteko kendu egingo dizkiote, ez zaio metro karratu bat bera ere geldituko. Ikusiko bazenute zer zoragarria den hura! 7000 negutegi azken urteetan eman diren aurrerapenekin jarrita. Pena ematen du.

### **Nahikoa diru emango diote lur horientatik.**

Hori ez da horrela. Zu lur haietan lanean ari zarenean eta egunsentian jeneroa badatorrela ikustean, izugarriko poza ematen du. Lurren truke dirua emango dute, baina dirua joan egiten da. Lur horiek daukazun bitartean, ordea, orain eta gero hor edukiko dituzu. Etxea saltzean dirua jaso arren, diru hori gatatatu egiten da. Hala ere etxea ja ez da zurea. Tristeia da baina errealitatean hori gertatzen da: agintariek pentsatzen dutena eta kitto.

### **Nekazariak laguntzak jasotzen dituzue?**

Laguntzak badaude. "Zerbait behar baduzue guregana etorri" esaten digute eta lagundu ere egiten dute. Hala ere, nekazaritzak irtenbide bat behar du, laguntzak badaude baina irtenbiderik ez dugu ikusten. Orain babarruna, babarrun motxa, potxa... landatu behar ditugu. Baina gure buruari zera galdetzen diogu: hazia bota behar al dugu? Gero irtenbiderik izango al dugu?

### **Gazteek baserrian, nekazaritzan ez dutela lan egin nahi esaten da. Egoera honetan zu hasiko al zinake?**

Ez dakit zer egingo nukeen. Atzetik gazteak ez datozela esaten dute. Baina horrela nola etorriko dira ba? Piskanaka-piskanaka galtzen joango da nekazaritza. Gero bai, lurak soberan izango dira. Kontutan hartu baserriarrek hortik ateratzen dutela dirua, hor egiten dutela lana. Jeneroa ez da hazia jarri ahala etortzen. Ba al dakizue zenbat gauza bota behar zaion? Atxurrekin jardun behar den lan honetan gutxienez 25.000 pezeta joaten zaizkigu hilean eta gero saltzeko ziurtasunik ez.



## Pello Arregiren ustezko hiltzailea atxilotu dute

**P**ello Arregiren ustezko hiltzailea kartzelan da ja. Hipólito F.B., 48 urteko Barakaldoarra, Ertzaintzak atxilotu zuen bere etxean joan den apirilaren 21ean eta epailearen aginduz, kartzelan sartu dute martxoaren 12an Arregi bitxidanda izan zen lapurretan eta Pello Arregiren hilketan zerikusia izan dezakeelakoan.

Apirilaren 24an, Donostiako Auzitegi Nazionalean ordubete inguru deklaratu zuen Zamoran jaio eta Barakaldon bizi den Hipólito F.B. atxilotuak. Bere adierazpenen arabera, martxoaren 12an Arregi bitxidanda izan zen lapurreta hartan ez zuen parte hartu. Usurbilen behin bakarrik izan omen zen, 1968. urtean eta orduan, senitarteko batzuk

ikustera etorri zela esan zuen atxilotuak.

Ez da kartzelan egoten den lehen aldian. Bi urtean aske egon bazen ere, 1981etik 1995. urtera kartzelan eman zituen bere bizi-zako egunik gehienak. Izan ere, hainbat lapurretatan parte hartu zuela baieztatu zuen ustezko hiltzaileakt. Kartzelako egonaldi horietako batean, Basauriko espetxean ezagutu zuen Usurbilen, lapurretaren ondoren atxilotu zuten Antonio G.G.

Lapurreta eta hilketaren testigu izan ziren sei usurbildarren aurrera eraman zuten gero. Seieta bategi, **Ana Mari**




**Zumetak**, duda izpirik gabe, lapurretan parte hartu zuen gizona hura zela esan zuen. Beste lau pertsonak lapurra ezagutu bazuten ere, ez zeuden oso ziur. Seigarren testiguak ez zuen ezagutu.

Epaileak, bi aldeen eritziak entzun ondoren, atxilotua Basauriko espetxean sartzeko agindu zuen.



**E**zusteko ederra hartu zuten joan den maiatzaren 2an Usurbil F.T.ko kideek. Partidua hasi baino ordubete lehenago Harane futbol zelaiako portierietako sareak puskatuta zeudela konturatu ziren. Sarearen zati batzuk ebaki eta eraman egin zituzten, beste zati batzuk bertan utzi zituzten bitartean. Horrez gain, zelaiaren zati batean zulo bat egin zuten eta korerretako banderina futbol zelaiaren atzeko belardira botata zeuden.



**K**arramarroak, bakailoa patatekin, tarta gorria, Kubako rona, purua, txanpaina eta Txina gorriko tea berdea. Horixe izan zen Larrañaga taldeak antolatutako afari menua. Komunismoko sinboloen artean, Donostia aldeko 70 pertsona inguru bildu ziren Aitzaga Elkartearen egin zuten afarian. Aurrez, **Txomin Lorca** LABeko kideak "Sindikalismoa...sozialismoa" hitzaldia eskaini zuen 30 entzule ingururen aurrean.

**ALKARTASUNA  
KANPO  
KOOPERATIBA**

Haziak, pentua,  
ongarriak,  
sulfatoak,  
burdinjeki-tresnak,  
fitosanitarioak...

Kale nagusia, 24 Telf. 36 11 14

**MAHUKA**



**GAZTE DENDA**

*Udaberriko moda  
berria zuretzat!*

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 36 11 06

**TXARO ARTZE  
ILEAPAINDEGIA**

Buru-azalaren zainketa  
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85



## Gizon bat trenak harrapatu zuen geltoki ondoan

Zumaiatik Donostiara zihoan trenak gizon bat harrapatu eta hil egin zuen joan den apirilaren 27an tren geltokiko pasabidean. 16.57tan Usurbilen gelditu zen Eusko Treneko trena eta Donostiara abiatu zenean harrapatu zuen **Carlos E.E.** donostiarra Etxealdiatik Santueneara joateko trenbidea pasa behar den lekuan. Trenbide ondoan zaindu ondoren, larriki zaurituta, osasun zerbitzuek hospitalerako bidea hartu zuten; hala ere bertara iritsi baino lehen hil zen. **Carlos E.E.** ezaguna zen herrian. Urdaigako sendategian zegoen aspalditik eta bere lagunekin askotan jeisten zen Usurbila.



## Kotxe bat erre da Etxealdian



Aprilaren 27an kotxe bat erre zen Etxealdian. Sua goizeko 3.30ak aldera piztu zen Renault 19 markako kotxe gorri batean eta erabat kixkalita gelditu zen ibilgailu hau. Ondoa zeuden Ford Fiesta eta Opel Kadett batek ere kalteak jasan zituzten, segurtasun indarrek guztiz erre baino lehen handik kentzea lortu bazuten ere. Sua nola piztu zen ez dago argi. Herrizaingo sailaren arabera kotxearen inguruan ez zegoen sua asmo txarrez piztua izan zela adierazten zuen arrastorik. Renault 19a azken bi egunetan inork erabili gabe leku berean zegoen.

## Diabetesari buruzko hitzaldia

Guraso eskolak antolatuta, Miguel Goena medikuak diabetesaren egungo egoerari buruz hitz egin zuen Udarregi zaharrea izan zen hitzaldian. Bertan, diabetesa zer den, nola sortzen den, diabetesa duten pertsonen zer tratamendu ematen zaien eta gaixotasun honen inguruko hainbat gai landu zituen hitzaldia iraun zuen ordu ta laurdenean. Medikua hitzaldia hasi baino lehen, diabetesa duten pertsonen elkarteko kide batek elkartearen funtzionamenduaren berri eman zuen Udarregi zaharrea bildu ziren 30 lagunuen aurrean.




### PORTULARRUME



### ITURGINDEGIA BAINUKO ALTZARIAK



Kale nagusia, 2-2-2D  
Tlf. Denda 36 46 37  
Etxea 36 52 99



### TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea. 3 - Tlf. 37 00 13

### TABERNA JATETXEA



### ANTXETA

EGUZKITZA, 4  
TEL: 37 03 44  
20.170 USURBIL

## Jende gutxi eta eguraldi txarra Andatza egunean



**A**zken urteetako eguraldi onak bizkarra eman dio aurten Andatza egunari. Udaberrian sartu ginenetik eguraldi txarra izan da nagusi eta maiatzaren lehen igandea baino lehen izandako euriteen ondorioz jende gutxi igo zen Andatzara. Hala ere, gaitzerdi, goiz osoan ez baitzuen ia euririk egin. Lokatzartean bada ere, pixkanaka-pixkanaka, jendeak, txabolara hurbildu eta salda beroa edan eta ogitartekoak jateko aukera izan zuen behintzat. Eta noski, gorputz izerdituen barruak astintzen, ardoz betetako zahagia han ibili zen bueltaka. Datorren urtean eguraldi hobea egingo ote du...

## “Zazpi eskale” hurbildu ziren kiroldegira

**S**arrera ordaintzea besterik ez zuten eskatu ez Sohizko eskale hauek. Gero, eskatu baino gehiago kontzertua eskaini zuten. Izan ere, besteak beste Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Josu Zabalak osatzen duten “Zazpi eskale” taldeak “Barrenkaleko bluesak” bere azken diskoa aurkeztu zuen Oiardo kiroldegian joan den apirilaren 30ean. Emanaldia amaitzerakoan, entzuleen artean zeudenetatik batzuk ederrak entzun behar izan zituzten. Unai Iturriaga eta Igor Elortza oholtzatik jeitsi eta entzule batzuei koplak abesten hasi ziren.



## Ejerzitoari eta erdarari aurre egin nahian



**F**rontoiko ezker paretaren atze aldeak fitxura berria hartu zuen joan den apirilaren 25ean. Ezkerretako irudian ikus daitezkeen bezala “Ejerzitoari eta erdarari insumisioa” murala pintatzen jardun zuten goiz eta arratsaldean izen bereko lemapean egin zen jai egunean. Ilunabarrean, berriz, afari herrikoa egin zen frontoian. Bapo jan eta edan ondoren karaokea, Usurbilgo artista berrien emanaldia entzuteko aukera ezin hobea izan zen.



**gorriti**  
EDARITEGIA  
kafe berezia

San Esteban kalea, 8

TLF 36 27 70

20170

USURBIL



Arkume erretegia

Arkumea parrilan

Haurrentzako parkea

Ospakizunak eta despedidak

Aparkalekua

Barazkiak parrilan

Etxeko berezitasunak

Zumartegi industrialdea  
Aitezarra kalea. 4

USURBIL Tel.: 36 60 49

**XXII. SANTIXABEL BERTSOPAPER LEHIAKETA**

**“Ni animalia bat naiz”.** Horixe da aurten XXII. Santixabel bertsopaper lehiaketako gaia. 8-10 bertso aurkeztu ahal izango dira eta lehiaketan parte hartzeko usurbildarra izan behar da. Sariak, berriz, hauek: 30.000 pzta. eta txapela lehenengoari, 20.000 pzta. bigarrenari eta 10.000 pzta. hirugarrenari. Lanak ekainaren 27a baino lehen bidali behar dira “Udarregi zaharra, bertsopaper lehiaketa, Irazu kalea 14, Usurbil 20170” helbidera.



**A**ntxeta jatetxean amaitu dira larunbatetako musaldiak. Udazkenean hasita larunbatero-larunbatero muslari ugari pasa da bertako mahaietatik. Batazbeste 25 bikote izan dira larunbat arratsaldetan Antxetara gerturatu eta mus txapelketa luze honetan parte hartu dutenak. Maiatzaren 2an jokatu ziren denboraldi honetako azken saioak. Txapelketa osoan puntuaziorik onenak atera zituztenak eta azken saioan garaile izan zirenak dituzue irudian.

**ZILARREZKO EUSKADI SARIA**

**Joan Mari Torrealdai**k Gipuzkoako Liburu Saltzaileen Elkarteak ematen duen Zilarrezko Euskadi Saria irabazi du “El Libro Negro del Euskera” bere azken lanagatik. Sari hau irabazten duen bigarren aldia da. Iaz euskarazko sailean saritu zuten eta aurten, berriz, erdarazkoan lortu du saria. Euskarak azken hiru mendeetan Espainia eta Frantziako estatuetatik jaso duen tratamendua agertzen duen hainbat pasarte bildu ditu usurbilgoak liburu honetan.



**L**asarteko Amnistiaren aldeko Gazte Ekimenak antolatuta kontzertua izan zen joan den maiatzaren 1ean herriko frontoian. Radio di momento, Skalariak eta Betagarri musika taldeak aritu ziren oholza gainean. Ez zen jende asko bildu kontzertuan Skalariak taldekoek, lehenetik ere gutxi ez eta, kide berri bat izan zuten momentu batzuetan, “Xoberano”.



**A**rin-arinak, fandangoak, porrusaldak, kalejirak... poupourri ederra eskaini zuten joan den maiatzaren 3an Amaia eta Kristina trikitilariak eta beren laguntzaileek. Udaberriko dantzaldietako azken saioan dantzari finak ere topatu genituen. Ez dira askotan aritzen diren horietakoak, baina igandean behintzat, ez zuten lotsarik izan.

**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

**TXURRUT EDARITEGIA**



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel: 36 00 80

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel: 36 17 83

## Herri arteko pelota txapelketatik kanpora

**U**surbilgo pelotariak ezin izan dute apirilaren 24an hasi zen herri arteko pelota txapelketako lehen kanporaketa gainditu. Arrasateren aurka 3 eta 3 berdindu arren tanteoz txapelketatik kanpora gelditu dira.

Apirilaren 24an Arrasaten jokatu zituzten joaneko partiduetan galdu zuten ia-ia kanporaketa. Bertan, hiru partidutatik bi galdu zituzten, eta tanteoari dagokionez Arrasatearrek 14 tantoko aldea lortu zuten.

Egoera beltz honekin jokatu zituzten joan den apirilaren 30ean itzuliko partiduak. Kadeteetan, **Unai Esnal** eta **Jon Arrutik** 18-11 galdu zuten Arrasaten eta Usurbilen ere ez zuten garaipenik lortu, 18-13 galdu zuten.

Jubeniletan hasiera polita eman zioten partiduari **Arkaitz Izagirre** eta **Mikel Kastresanak**. Joaneko partiduan 22-7 galdu ondoren, 14-0 eta 16-3 aurretik egon zen Usurbilgo bikotea. Erraz irabaziko zutela zirudienan, ordea, arrasatearrek bata bestearen atzetik tantoak egi-ten hasi ziren eta azkenean justu-justu irabazi zuten usurbildarrek, 22-20.



Gauzak honela, **Enrike Huizi** eta **Iñigo Olaizolak** 5 tantoz azpitik utzi behar zituzten arrasatearrek. 13 eta 4 egon ziren, baina amaieran 22 eta 16 izan zen azken emaitza. Usurbilen 2-1 irabazi arren txapelketatik kanpora gelditu da Usurbil. Hurrengo urtean izan beharko.

Bestalde, eta herri arteko txapelketa atzean utzita, gaztetxoek Usurbilgo pelota txapelketari ekin zitzaion joan den maiatzaren 1ean. Gipuzkoa osoko bikoteak parte hartzen dute txapelketa honetan. Larunbatean goiz eta arratsaldez eta igande goizez, alebin, infantil eta kadete mailako pelota partiduak ikus daitezke herriko frontoian. Usurbildarrek ere txapelketa honetan parte hartzen dute; 7 bikote alebinetan, 2 infantiletan eta beste 2 kadeteetan.

## Judon, kadete mailan, Euskadiko txapeldunak

**O**lardo Kiroldegian Euskadiko judo txapelketa jokatu zen joan den apirilaren 25ean. Azken urteetan emaitza bikainak lortu izan dituzte usurbilgo judoek eta aurten ere ez dute huts egin. Guztira sei domina eskuratu zituzten.

Euskal Autonomi Elkarteak kadete mailako judoka onenak bildu ziren Usurbilen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik etorrita, nor baino nor, lehia bizi aritu ziren Olardo kiroldegian.


Usurbildarrek emaitza bikainak lortu zituzten herritarren aurrean: urrezko hiru domina, zilarrezko bi eta brontzezko bat. 50 kiloz azpikoetan, Atxegaldeko **Xabier Herasek** urrezko domina leporatzea lortu zuen.

55 kiloz azpikoetan, berriz, **Andoni Aizpurua** zen faborito nagusia eta atxegaldekoak ez zion aukerarik eman finalean aurrez-aurre zuen bizkaitarrari. Pisu berean, **Iñigo Etxanizek** 3. postua eskuratu zuen.

60 kiloz azpikoetan **Iban Etxanizek** ezin izan zuen finala irabazi eta zilarrezko dominarekin konformatu behar izan zuen.

Azkenik, 71 kiloz azpikoetan, usurbildarren arteko finala jokatu zuten. **Mikel Martin Aitzol Arrosperideri** nagusitu zitzaion.

Txapeldunek Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera izango dute. Zorionak denoi!



# Ekaitz

## Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil

Tlf 36 14 87

OIARTZUN

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

## Usurbil F.T. igoera fasean

**E**rrejional mailako Usurbil Futbol Taldea lehen mailara igo daiteke aurten. Momentu honetan igoerako fasea jokatzeko ari dira eta hiru partidu falta direnean bigarren postuan kokatuta daude.

Datozen hiru asteak erabakiorrak izango dira talde honen etorkizunerako. Hainbat urte bigarren errejional mailan egon ondoren, lehen mailara itzultzeko aukera ezin hobea dute oraingoan. Igoera fasea amaitzeko hiru partidu besterik falta ez direnean, bigarren postuan kokaturik daude. Elgoibar dute aurretik, puntu bateko aldearekin, eta Gwendoline atzetik puntu batera. Hala ere, bi talde besterik ez dira igoko.

Datorren maiatzaren 9an partidu erabakiorra izango dute. Elgoibarko Mintxeta futbol zelaian jokatu dute bertako taldearen aurka. Garaipena

lortu ezker aurrerapauso haundia emango lukete. Horregatik zaletuentzat autobusa jartzeko asmoa omen dute.

Hau ez da Usurbil F.T.ak duen talde bakarra. Jubenilek, iaz, denboraldi bikaina egin ondoren lehen mailara igotzea lortu zuten. Aurten, ordea, berriz 2. mailara jeitsiko dira, azken postuan baitaude. Nesken taldea ere hor dago. Bigarren urtea dute aurtengoa eta pixkanaka-pixkanaka gero eta garaipe gehiago lortzen ari dira. Hauekin batera, kadete eta infantilen taldeak daude.

Usurbil F.T.a sortu zela 22 urte beteko dira aurten eta talde guzti hauen itzalean egin den lana etengabea izan da. Taldeko ordezkarien esanetan, lan asko dago egiteko eta lan egiteko prest dagoen jende berria gustora hartuko lukete.



## Emaitzak

### Futbola

#### Apirilak 25-26

Touring **1** - Usurbil F.T **2** (2.R.)  
 Ilintxa **5** - Usurbil F.T **1** (ju.)  
 Usurbil F.T **0** - Antoniano **1** (n.)

#### Maiatzak 2-3

Usurbil F.T **4** - Boskozaleak **3** (2.R.)  
 Usurbil F.T **1** - Bergara **3** (ju.)  
 Hondarribia **0** - Usurbil F.T **3** (n.)

### Eskubaloia

#### Apirilak 25-26

Ormaiztegi **14** - Usurbil **33** (2.N.)  
 Oarsoko **24** - Usurbil **24** (ju.m)  
 Oarsoko **29** - Usurbil **26** (ka.m)  
 Usurbil **21** - Urnietako **16** (ka.n)

#### Apirilak 4-5

Usurbil **28** - Hondarribia **20** (ju.m)  
 Usurbil-Urrietako (ka.m) Atzeratua  
 Urrietako **35** - Usurbil **20** (ju.n)  
 Bidebieta **15** - Usurbil **12** (ka.n)

### Saskibaloia

Usurbil S.T **30** - Salesianos **45**  
 Lux Z.K.G **55** - Usurbil S.T **30**

### Areto futbola

Xabier Edar. **5** - Agirre Paste. **2**

### Hondartzako futbola

Aginaga Sag. **9** - Bar Esnaola **3**


### Laburdurak

R.: errejionalak    ka.: kadeteak  
 N.: nazionala    n.: neskak  
 ju.: jubenila    m.: mutilak

## XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2    ☎ 36 19 78



Igandetan ganba-ziri mundialak!

EGIN  
 ZAITEZ  
**NOAUA!KO**  
 BAZKIDE



## Irlandara alajaina!



**Mari Jose Korta Etxeberria**

- 45 urte
- Txikierdikoa
- Langilea
- Eskulanak egitea gustatzen zaio: zaharberrietak, pintatzea...

**N**ork esan behar zigun guri horrelako bidaia bat egiteko aukera izango genuenik! Irlandara alajaina! Ba bai, Ipar Irlandan izan gara eta ederki pasa dugu gainera.

Elkarrik antolatu zuen bederatzi eguneko bidaia, agentzia baten bidez, eta Ipar Irlanda eta bere egoera ezagutzea zen helburua. Edozein turistak ikusten dituen lekuak bisitatu, eta gainera, hango errealitate politikoa, eta sinatu berri duten akordiora iristeko pausoen berri izan genuen.

Horretarako, Elkarrik bertako partiduetako ordezkari eta adituekin hainbat elkarrizketa antolatuta zituen, Stormont bertan ere izan ginen... Ez genuen aspertzeko betarik izan!

Ikusi genuen bai, telebistan agertzen zaigun Ipar Irlanda!

-Produktu-banatzailleentzat bakarrik irekitzen diren kaleak ixten dituztenteak.

-Torreta erraldoiak, bideo sistemaz hiri osoa ikusi ahal izateko.

-Txarrantxa eta sarez babestutako leiho eta sotoak, auzo guztietan zehar.

-Horma sendo eta luzeak, injustizia eta gorrotak erdibitu dituen komunitateak bereizteko.

-Pintada esanguratsu, eder eta gorrak etxetako aurre al-

deetan.

Hau guztia ikusi genuen, baina baita...

-Irlandako zelai berde eta txukunak ere.

-Itsas bazter zoragarriak.

-Belfast hiri erdiko kale dotoreak.

-Historiaz betetako Derry-ko harresi zaharrak.

-Pub-etako giro atsegina. Musikaz eta kantuz elkartu eta bertakoa sentiarazten zaituen bertako jendea.

Era guztietara prestatutako patatak, Irlandako janari nazionala, probatu genituen. Asko gustatu zitzaizkigun odolkiak, garagardoa eta whisky irlandarra. Baita Dublineko bizitasuna eta giroa ere.

Bakea lortzeko jartzen ari diren borondatea eta egiten ari diren lana ere asko gustatu zitzaigun. Akordioak ez ditu inoren helburak asetzen, horrek egiten du zaila,

baina aterik ere ez diote inori ixten, honek egiten du posiblea. Akordioa onartzen bada, ipar irlandarrek erabakiko dute beraien etorkizuna.

Guk, berriz, ziur arreta gehiagoz jarraituko dugula han gertatzen dena, Ipar Irlanda eta bertako jendea ezaguturik, nolabait maitemindurik etorri baikara.




## Salsa erritmoak; ondo pasatzeko modua

**B**atzuk gimnasia egiten dute, beste batzuek paseatzera joaten dira Zubieta aldera eta badira salsa eta merenge erritmoetara makurtzen direnak ere. Astean behin elkartzen dira Udarregi zaharrean egunero-kotasuna astindu ta bizitzari mugimendu pixka bat eman nahian. Ez da eguneroko burukominak lasaitzeko modu txarra, ez horixe!

Ipurdia mugitu eta ondo pasatzeko prest dagoen edo-nork badu bere aukera guraso eskolak antolatutako Areto dantzen ikastaroan, laz ere izan zen ikastaro hau eta badirudi esperientzia atsegina izan zela, gehienak aurten ere animatu baitira.

Udarregi zaharrean eta astean behin elkartzen diren 15 pertsona inguruz osatutako hiru talde daude ja. Asteazken goizean zein arratsaldeetan eta ostiral arratsaldeetan egiten dira dantza saioak eta norberari ondoen datorkion saiora joateko aukera eskeintzen du ikastaroak.

Adin guztietako jendea biltzen da ondo pasa eta zertxobait ikasteko gogoz. Sexoa oztopoa ez bada ere, badirudi emakumezkoek dantzarako



zaletasun handiagoa dutela, gizonezko gutxi animatu baita dantza saio hauetara. Ondorioz emakumezko askok emakume zein gizonen pausoak ikasi behar dituzte, Zergatik horren gizon gutxi? Agian lotsa kontua izango da edota trebezia falta, dena dela argi dago emakumea berez dela "saltseragoa".

### Salsa nagusi

Salsa lantzen da gehienbat klase hauetan. Hala ere beste-lako dantzak ere ikasten dituzte, merengea, tangoa, pasodoblea...

Klaseetan lehendabizi irakasleak egiten ditu pausoak eta gero besteak hauek errepikatzen saiatzen dira. Ikasleek

diotenez ez da berezko gaitasun berezirik behar dantzarako, **edonor** gai da dantza hauek ikasteko. Noski, batzuk besteak baino trebeagoak dira baina perfekzioa ez da garrantzitsua, ondo pasatzea da funtsezkoa.

Azken finean zer dela eta biltzen da jendea ipurdia mugitzeko? ETBko Dantzaki delako saioan ateratzeko asmoa ote dute?

Ikasleek diotenez dantza egitea lasaitzeko modu bat da, arazoak eta lana ahaztu eta ondo pasatzeko aukera paregabea. Ondo dantza egiteko ordu asko sartu beharra dago, praktika haundia behar da. Gainera been helburu nagusia ez da hori, ondo pasatzea baizik. Astean bi orduz aritzea gutxi da eta normalki ez dute etxean praktikatze betarik izaten.

### Areto dantzak indarrean

Badirudi azkenaldian Areto dantzak modan daudela Euskal Herrian, izan ere, ia herri guztietan daude dantza ikastaroak edo akademiak. Dantza mota hauek hartzen ari diren indarra medio, zenbait diskoteketan dantza hauek praktikatzeko saioak antolatzen dituzte, zenbait gaueetan salsa, merenge eta tango erritmoak jarriaz etengabe.

Guk, oraingoz behintzat, ez dugu dantza talde hau ikusteko aukerarik izango, ez baitute jendaurrean dantzatzeko asmorik.

Honela, bada, berbenetan dantzan hain gustora ibiltzen zaren hori Udarregi zaharrera gerturatu zaitezke eta konturatu zara dantza kontuan asko daukazula ikasteko.




## Herreratik agur bero bat

**E**skutitz honen zergatia aurrera daramagun borrokan egin ditugun ekintzak, eta hauek ematen diguten baikortasuna, zulo honetatik plazaratzea da. Argi dago euskal presoak Euskal Herrira eramatea euskal gizartearen eskuetan dagoela, baina presoak ezin dugu amore eman eta geurea ere eman behar dugu, horregatik, "Euskal presoak Euskal Herrira" kanpaina hasi genuenetik kalean aurrera eramaten diren eta ematen ari diren iniziatibekin bat eginez hemen barruan hainbat ekintza ere burutu ditugu.

Kontuan eduki behar da preso egonda oso mugatuta gaudela edozertarako, baina preso gauzaten Estatuek argi eduki behar dute preso gauzaten arren ez gaituztela irabazi, ez euskaldun bezala, ez gizaki bezala. Horrela, hemen gertatzen diren, edo egiten ditugun gauzei, nahi gabe, ez zaie ematen merezi duten garrantzia. Hasiera batean gose grebak eta "txapeoak" izan ziren, eta ekintza hauek baztertu gabe beste mota batzuetako ekintzei ere ekin diegu insumiso filosofia landuz. Zoritxarrez, denbora asko pasatu beharko da gu kalean izan arte, eta oporrik eta jaiegunik ez dugunez, gure indarrak neurtu behar ditugu.

Espetxe bakoitzean bertako baldintzen eta egoeraren arabera zertxobait egiten ari gara. Hemen, hasieran, txandakako pasiloetako garbiketa inposatu nahi ziguten, eta hori egiteari uko egin genion, honek ia bi urtean zehar zigorrak ekarri dizkigularik. Gero, ziegetan banaka egoteko hainbat plante burutu dugu, eta hauen ondorioz baita zigorrak jaso ere. Urte honetako urtarilean kolektiboak egin zuen plante burutzeagatik berriz zigortuak izan gara. Borroka guztiona denez, eta batasuna eta elkartasuna beharrezkoak direnez, kide bat isolamendura eramaten badute, besteok, denok batera, planteari ekiten diogu



guztiok isolamendura eraman gaitzaten. Baina gure ametsa kaleratzea izanik, eta hori lortu arte gure herrira eramatea eskatzen dugunez, Euskal Herrira eraman arte hemengo bizi baldintzak hobetearren ere borrokatu behar dugu (...)

Azkeneko hilabeteotan astelehenero arratsaldeko zortzietan garitaren aurrean "Presos vascos a Euskal Herria" pankartarekin jartzen gara, bost minutura instantzia bana ematen dugu gure eskakizunekin, eta hurrengo egunean hoi ziurtagiriak horretan itsastan ditugu, espetxeak gure eskakizunak ahaztu ez ditzan.

(...) Bidaltzen ditugun eskutitzetan (ez da ahaztu behar ia euskal preso politiko guztiok korreoa murriztua eta interbenitua dugula, eta euskaraz dauden gutunak hilabete egon daitezkeela bueltak ematen bere helbidera

iritsi arte) Euskal Herritik milaka kilometrotara ilegalki milaka egun daramatzagula gogorazten dugu gutunaren hitz-aurre gisa. Ematen dizkiguten idazki ofizial guztietan "Presos vascos a Euskal Herria" edo "Dispersión no" sinatzen dugu, eta lelo berdinekin "txapak" (guk egindakoak) arropatan eramaten ditugu.

Bisita eguneko komunikazio zerrendetan ere gure herritik zenbat kilometrotara gauden ipintzen dugu, kartzeleroei gure senitartekoen sufrimenduaren arduradunak direla gogoratzeke. Ajuria Eneako eta Iruñeko paktuetako alderdiek gure senitartekoen sufrimenduaren politika diseinatzen badute, kartzeleroek agindu horiek betetzen dituzte epaileen adostasun osoarekin, eta guztiak arduradunak dira.

Espetxea ezagutzen ez duenak garrantzi gabeko edo txorradak besterik ez direla pentsa dezake, baina ez da horrela. Egunero gure eskubideak borrokatzen dira eta egun bakoitzean borrokatu behar dugu, guri esker plusak kobratzen dituztenek, plus horrek bere prezioa duela jakin behar dute, prezio hori hainbat preso hilak, senitartekoak hilak edo zaurituak bidaietan, familiei xahutzen zaizkien milioika pezeta, etabar, hori da benetako prezioa. Baina hasieran genion bezala, euskal gizartearen laguntza behar dugu, eta horregatik, preso dauden beste kideak agurtzeaz aparte eta hemen egiten ditugun ekintzak ezagutarazteaz aparte, Euskal presoak Euskal Herrira herri ekimena lantzen ari zireten guztioi eskerrak eta agur beroena bidali nahi dizuegu eta horretan jarraitzeko animatu nahi zaituztegu.

**Xabier Aranburu Muguruza.**  
(Herrera de la Manchan dagoen euskal preso politikoa)  
**Egin egunkarietik hartua**



## Bota bertsoa

### Euroa

Garai batean trukea  
gizartearen legea,  
dirua zen gordea,  
gaur berriz ez ordea.  
Hori da morroi bakarra  
halere nagusi txarra

Datoz prezio berriak  
lehendik iragarriak,  
Europatik jarriak,  
ta hemen ezarriak.  
Nolakoa eragina?  
A ze tripetako mina

Ohitu beharko da hortan  
dago berrogei durotan.  
Ura ere eurotan,  
behar ordaintzekotan,  
0,5 euro edo,  
denok bihurtuko ero.

**Egilea: Iñaki Agirresarobe**  
**Doinua: "la gureak egin du"**

## Erremedioen txokoa

### Pleura hustutzeko

Biriken bueltan saortzen den ura kentzeko erremedioa da hau. Behi-esnearen gainaz pleura buelta dena ondo igurtzi behar da. Ondoren, metan edo mandioan egon ohi den belar ondua uretan egosi eta belar bero horrekin gorputz osoa estali. Gau guztia horrela igaro behar da.



## Lehiaketa



### Zein da etxe honen izena eta non dago?

Asmatzaileen artean **Bordatxon** bi lagunentzako afaria zozketatuko da

Zenbat metroko garaiera ote du Andatzak? **Jabier Arruti** lehiaketaren irabazleak dioen moduan 562 metro ditu. Goiko txabolaren ondoan Andatzak 562 metro dituela jartzen du. Zorionak Jabier eta ondo afaldu Patrin tabernan.




# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

**Xabier Carbayeda eta Goyo Martin**



## MAIATZAK 8 ostirala

- Areto futboleko partidua (m): **Cafe Boulevard- Xabier Edaritegia.**
- Saskibaloiko partidua (m): **Usurbil S.T - Kostkas.** Oiardo kiroldegian gaueko 20.00etan.

## MAIATZAK 9 larunbata

- Eskubaloi partidua kadete mailan (n): **Usurbil K.E- Leizaran.** Oiardo kiroldegian arratsaldeko 17.00etan
- Eskubaloi partidua jubenil mailan (n): **Usurbil K.E- Bidebieta.** Oiardo kiroldegian arratsaldeko 18.30etan
- Eskubaloi partidua jubenil mailan (m): **Pasaitarra - Usurbil K.E.**
- Eskubaloi partidua kadete mailan (m): **Leizaran- Usurbil K.E.** Andoaingo kiroldegian
- Futbol partidua jubenil mailan (m): **Urki - Usurbil F.T.**
- Futbol partidua errejional mailan (m): **Elgoibar - Usurbil F.T.** Elgoibargo Mintxeta futbol zelaian. Igoera fasea.

- Futbol partidua errejional mailan (n): **Usurbil F.T. - Allerru.** Harane futbol zelaian.

## MAIATZAK 10 igandea

- Bigarren nazionaleko eskubaloi partidua (2N): **Usurbil K.E- Arrate.** Oiardo kiroldegian goizeko 11.30etan.

## MAIATZAK 15 ostirala

- Areto futboleko partidua (m): **Xabier Edaritegia - Extremeño**



Aginaga Sagardotegiak finalerdietako partidua jokatu du datorren maiatzaren 10ean Kontxako hondartzan. Aurten, lehen fasean huts egin ondoren Kopa jokatu behar izan dute. Horrenbeste urtetan finala jokatu ondoren, aurten ere azken partidu horretara iritsi daitezke, nahiz eta Kopako finala izan. Maiatzaren 10ean 9. zelaian jokatu dute Atletico de Medellin taldearen aurka goizeko 9.15etan hasita.

- **A. Leizaran** Oiardo kiroldegian, 20.45etan.

## MAIATZAK 16 larunbata

- Futbol partidua errejional mailan. Igoera fasea.(m): **Usurbil F.T. - Intxaurren** Harane futbol zelaian.
- Eskubaloi partidua kadete mailan (m): **Usurbil K.E- Egia.** Oiardo kiroldegian arratsaldeko 16.00etan.
- Eskubaloi partidua jubenil mailan (m): **Usurbil K.E- Leizaran.** Oiardo kiroldegian arratsaldeko 17.30etan
- Bigarren nazionaleko eskubaloi partidua (2N): **Usurbil K.E- Egia.** Oiardo kiroldegian 19.00etan

- Saskibaloiko partidua (m): **Alde Zaharra - Usurbil S.T -** Elgoibarko kiroldegian arratsaldeko 19.00etan.

- Futbol partidua errejional mailan (n): **Alde Zaharra - Usurbil F.T.** Donostian.

- Eskubaloi partidua jubenil mailan (n): **Leizaran - Usurbil K.E.** Andoaingo kiroldegian

- Eskubaloi partidua kadete mailan (m): **Leizaran txiki- Usurbil K.E.** Andoaingo kiroldegian

## MAIATZAK 17 igandea

- Futbol partidua jubenil mailan (m): **Usurbil F.T. - Burumendi.** Harane futbol zelaian.



LASARTE- ORIAKO  
BATXILER INSTITUTUA

-DBH

-LOGSE batxilergoak

Giza eta gizarte zientziak  
Natur eta osasun zientziak  
Teknologikoa

-Ziklo formatiboak

Gestio Administrazioa (Ziklo ertaina)  
Administrazioa eta finantzak (Goi mailakoa)

-Unibertsitatera sartzeko prestakuntza 25 urtetik gorakoentzat

Telf: 37 28 52

Aurretiko izen ematea:  
Maiatzak 18  
Goi zikloentzako:  
Ekainak 16tik 19ra

## KUADERNA EZAZU NOAUA!

1.-Bil itzazu **1etik 33 bitarteko aleak** eta aurkibidea. Faltan baduzu guri eskatu.

2.-Lizardi edo **Laurok** dendetara eraman itzazu aleak eta bertan egingo dute kuadernatze lana (Tapak bertan daude).

3.-Kuadernaketa **beste nolabait** egin nahi duenak tapak **Noaua!** eskura ditzazke.

# A genda

## MAIATZAK 8 ostirala

- Lasarteko musika eskolako ikasleek, Usurbilgo eskusoinu taldeak eta txistulari taldeak **kontzertua** eskainiko dute Salbatore parrokian. Arratsaldeko 20.00etan.

## MAIATZAK 9 larunbata

- "Txan handia euskal magoa" Aginagako elizako zinema aretoan arratsaldeko 17.00etan.
- Santixabelak prestatzeko **bilera** egingo da eguerdiko 12.00etan udaletxeko pleno aretoan. Azaldu zaitezte.

## MAIATZAK 11 astelehena

- Euskal Herria askatu!ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko 20.00etan.
- Udalak eta Guraso Eskolak gurasoei zuzendutako "Drogomenpekotasunen prebentzioa familian" ikastaroaren barnean, "**Droga kontsumoa eta horien eragina egungo gazterian**" hitzaldia **Mikel Goenaga** hezitzailearen eskutik. Udarregi zaharrean.

- **Odol emaielen emanaldia** anbulatorioan. Arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara.

## MAIATZAK 13 asteazkena

- **Zumarte orkestrak kontzertua** emango du Orioko kultur etxean. Arratsaldeko 19.00etan.

## MAIATZAK 16 larunbata

- Zubietako haur eskolan **Joxe Maria Karrere ipuin kontalaria**. Arratsaldeko 17.00etan.

## MAIATZAK 18 astelehena

- Euskal Herria Askatu!ren konzentrazioa. 20.00etan.

## MAIATZAK 20 asteazkena

- "Gure artera" **bilgunearen** bilera 20.30etan Udarregi zaharrean.

## OHARRAK

- ✓ Marmitak erosiko nituzke. Deitu 36 39 21 telefonora eta Maitetaz galdetu
- ✓ **Etxea alokatu** nahi nuke Kaleberrin. Tlf. 37 14 95

## LANPOSTUAK

- ✓ **Injineru tekniko**en plazak aldi bateko izaeraz betetzeko hautapen probetarako deialdia egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eskakerak aurkezteko epea maiatzaren 11. G.A.Oko 71. zenbakian.
- ✓ Lasarte Oriako udalak **administrari bat** behar ditu. Eskakerak aurkezteko epea maiatzaren 11. Informazio gehiago G.A.O.ko 72. zenbakian.
- ✓ Lasarte Oriako udalak **hiru udaltzain** behar ditu. Eskakerak aurkezteko epea maiatzaren 12. Informazio gehiago G.A.O.ko 73. zenbakian.

## AGINAGAKO JUBILATUEN HURRENGO BIDAIK

✉ **Burdeosko azokara bidai** maiatzaren 23an

Prezioa: 2500 pezeta  
Izena emateko deitu:  
361106/ 361187/ 364356

✉ **Larrunera bidai** maiatzaren 30ean

Bazkaria: Nafarroan  
Arrate egoitzan eman izena



Maiatzaren 15etik 17ra **aekapada** Urdiainen. Ekitaldi ugari: Alaitz eta Maider, Etzakit, Maixa ta Ixiar, Latzen, Joxe Ripiau, Ekon, Zea Mays, bertsolariak, antzerki maratoia, herri kirolak, tailerrak, hitzaldiak, bideo emanaldiak, olinpiadak, karaokea...  
Bonoak **Etumeta** euskaltegian salgai.

## HADE

Euskara lantzeko familia euskaldun batean egonaldia egin nahi duenarentzat aukera.

Baldintzak:

- 18-40 urte artekoak.
- 8. urratsa gainditua izatea.

Eskabidea maiatzaren 15a baino lehenago egin behar da.

Informazioa: 943 41 26 21

## BAZKIDIE TXARTEEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: \_\_\_\_\_  
 1. Abizena: \_\_\_\_\_  
 2. Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

**406**  
**bazkide ditu Noauak!**  
**Zu ere egin zaitez**  
**bazkide**



# JAUNARTZERAKO ESKAINTZA BEREZIA

Errealeko nahiz Euskadiko txandal  
eta produktuetan %10eko deskontua

**APROBETXA EZAZU! MAIATZAREN 31 ARTE**



Tel.: 36 65 42